

42 » Jaurlaritzak eta Aldundiak Praileaitz koba babesteko akordioa sinatuko dute

44 » Verdiren 'I due Foscari' opera emango dute larunbatean Bilboko Euskalduna jauregian

Urte askoko lanaren saria

Antton Olariagak Dabilen Elea saria jaso du Euskal Literaturaren Gauean, liburugintzan eginiko lanaren onespenez

EEE, EIE, EIZIE eta Galtzagorri elkarteek antolatu dute ekitaldia eta saria

Oihana Lete Donostia

Euskal Literaturaren Gaua ospatu zuten atzo Donostiako Viktoria Eugenia antzokiko Club Aretoan. Iluntzeko 20:00etan hasi zen ekitaldia, eta bertan Antton Olariaga irudigilea saritu zuten Dabilen Elea sariarekin.

Antolakuntza lanetan euskal literaturgintzarekin lotutako lau elkarte hartu dute parte: Euskal Editoreen Elkarteak (EEE); Euskal Idazleen Elkarteak (EIE); Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak (EIZIE); eta Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteak. Elkarte horiek Kulturaren Euskal Kontseiluan parte hartzen dute, eta haien helburu nagusia da euskal liburuen sustapena eta bazkideen babesa bermatzea.

Idoia Noble aritu zen aurkezle lanetan, eta Anjel Lertxundi idazleak Olariagari buruz idatzitako testu bat irakurri zuen. «Olariagaren lana konprometitu da, baina ez euskararekin edo marrazkigintzarekin bakarrik: konprometitu da bitartekoen ere», aipatzen zen idatzian, eta «bere lana erreferente bazter ezina izan da euskal ilustrazioarentzat. Iparra eta aitindaria. Olariagaren bideetatik apartatu nahi zuen ere, Olariaga izan du

Antton Olariagak hurbiletik ezagutzen ditu literaturaren beharrak

Bideo emanaldia, umorezko esketxa eta koktela antolatu dituzte ekitaldian

bide berriak jorrazteko ispilu eta akuilu».

Antton Olariagak haur literaturarekin lotura berezia du, ilustratzaileak oso sakonetik ezagutzen ditu arlo horretako liburugintzaren premiak. «Zehaztasun handiz eta sakontasun inbidiagarri aztertu izan ditu haur literaturaren premia literarioak, premia didaktikoak, premia linguistikoak», azaldu zuen Noblek.

«Olariagak ez du bere lana beste bozgorailurik behar izan honaino heltzeko. Isiltasunean. Espanturik egin gabe. Euskal liburugintzak krisi gaiztoak izan dituen hor ikusi dugu ontziaren lemari eragiten; izukaitz, kei-nua aldatu gabe; esaldi surrealistaren bat bota eta, eskua bisera moduan jarririk, aurrera begiratzan du beti, zirkin erdi galdu erdi ironiatsu batekin». Hitz horiekin eman zioten amaiera Dabilen Elea sariaren irabazlearen lan ibilbidearen inguruko laburpenari.

Olariagaren esker ona

Olariagak, ondoren, esker oneko hitzak izan zituen guztientzat. Eskerrak eman zizkien liburuen inguruan, sorkuntzan eta beste edozein esparrutan berari irakasteko prest egon direnei; idazleetatik hasi, editoreekin jarraitu eta inprentakoekin amaituz. Liburuen munduan urte mordo daramala eta lan handia egin behar izan duela ere esan zuen. «Poz handia da horrelako sari bat



Antton Olariaga, Dabilen Elea sariarekin, atzean Miren Azkarate duela. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

eskuratzea, lan honetan aurrera jarraitzeko indarra ematen baitizu».

Ekitaldiaren hasieran, bideo emanaldi bat izan zen, liburuen eta teknologia berrien arteko loturari buruzkoa, ikuspegi historiko-umoristiko batetik begiratu. Bideoaren bikoizketa lanak Ramon Agirre eta Asier Soto

aktoreek egin zituzten. Ondoren, Ramon Agirrek berak, euskal liburuen munduarekin lotutako umorezko esketx dibertigarri bat egin zuen.

Jorge Gimenez (EEEko lehendakaria) eta Idoia Noble aurkezlearen hitzez gain, Donostiako Kulturako ordezkari Ramon Etxezarretak esker oneko

hitzak izan zituen ekitaldiari amaiera emateko.

Amaieran, gerturatu ziren guztiek goza zezaten, koktel bat prestatu zuten. Antolatuzaileen hitzetan «ospakizun kutsua eman nahi genion ekitaldiari euskal liburugintzaren bidea emankorra izana pozik egoteko modukoa baita».